

MERKATARIAK

ADELA GARTEIZ arropa dendea, AINHOA oinetakoak, AIZU aldizkariak, ALKAR jolasak eta kirolak, ALLUNTIZ burdindendea, AMILOTX liburu dendea, ANNE oinetakoak, ARES dastalekua, ARGIA optkea, ARGIBIDE elektrizidadea, ARRIEN optkea, ARRONATEGI pinturak, ARTETXE argi dendea, ATABAL tabernea, ATXIKE ehiza eta arrantzea, BAKE EDER kafetegia, BARIAZARRA musika dendea, BAREÑO jantzi dendea, BATZOKIA jatekea, BAZAR TXIKIA bazarra, BED'S koltxoiak, BEGO ETA NEREA lurrindegia, BEREZI liburu dendea, BIDAGUREN gozotegia, BIKANa altzariak, BILBAO aseguroak, BOLINA jatekea, BONILLA argazki dendea, BRONCEARIUM estetika zentroa, DECOREV dekorazinoa, DESMAYO SURF arropa dendea, DIONISIA arropa dendea, DOMINGEZ farmazia, DONIBANE albaitaritza, DUKA arropa dendea, DUSI lentzeria, EL CASERIO jatekea, EGUREN optika dendea, EROSKI bidaiak, ETXABE kirol dendea, ETXEO makailoak, EUSEBIO bitxi dendea, FERMIN zapata dendea, F-2 zapata dendea, GAROA konplimentuak, GAUBEKA liburu dendea, GERNI GARDEN lorak eta animaliak, GERNIKA ortopedia, GERNIKA Zerraldegia, GLOSS arropa dendea, GOTZONE umeentzako dendea, GUREA altzari dendea, IBAIALDE tapiz dendea, ILAR-GI dekorazinoa, INTER SPORT EXTREME, IRAZABAL burdin dendea, IRUSKIENTA bitxi dendea, IZAGA uleapaindegia, IZAS-KUN harategia, IZASKUN EGURROLA uleapaindegia, JABIER harategia, JAIME harategia, JASONE uleapaindegia, JESUS MARI harategia, JOSTEN umeentzako arropea, JOSU jatetxea, JUANITA MUGARTEGI mertzeria, KILI-KILI opari dendea, KIPU kirol dendea, KOPILASTER kopistegia, KOPIKOLOR kopiste-gia, KORTEZUBIKE jolasak, KOTOI mertzeria, L. de CARLOS tabakoak, LAGUN ON albaitaritza, LEIDE jostailu dendea, LEJARRAGA bitxi dendea, LEZAMA tabernea, LOIOLENE fruta dendea, LOREDER pharafarmazia, LOURDES fruta dendea, LUMIERE uleapaindegia, MABE poltsa dendea, MADARIAGA hortz klinika, MAITE arropa dendea, MARI KARMEN NAVARRO estetika-etxea, MARI SOL fruta dendea, MARI TERE okindegia, MARIA LUISA lurrindegia, MARIAN uleapaindegia, MAXI EROSKI, MENDI KIROLAK, MIKEL altzariak, NAIA arropa dendea, NERE KABIA taberna eta jatetxea, OGOÑO arrandegia, OJANGUREN elektratresnak, OLGA umeentzako arropea, OMAETXEBARRIA farmazia, OMAGO dastalekua, OMAGO dietetikea, OMAGO kafetegia, PARAPHERNALIA jantzi dendea, PEDRO BILBAO gozotegia, PEPI urdaitegia, PODIUM garaikurrak, QUOKKA arropa eta oinetakoak, SAN JUAN loteria, SANDALIO harategia TANDEM antenak, TAOS arropa dendea, TECNIRUEDAS GERNIKA, TODO DESDE 100 bazarra, TOTORIKAGUENA jantzi dendea, TRENBIDE arropa dendea, TXANKAN arropa dendea, UGALDE ortopedia, UMEAK umeentzako guztia, URANGA uleapaindegia, URDAIBAI artekaritza, USKOLA baserri tresnak, VIT-SEC tindategia, ZALLO harategia, ZALLO BARRI jatetxea, ZARRA prentsa-aldizkariak, ZIMELA jatekea, ZUBIALDE okindegia, ZUGATZA eskaratzeko altzariak, ZURICH aseguroak.

ENPRESAK

ABAUNZA Aholkularia, AITA VILLASANTE Udal Euskaltegia, AKELARRE Ostatua, ALGELEK SL, AMUNATEGUI - ZALABARRIA Abokatuak, APRAIZ Aseguruak, AREZA eraikuntzak, ARRONA-TEGI Pinturak, ARROYO Banaketak, ARZANEGI Arkitektura, ARZANEGI OAR Abokatuak, AUKA BIDAIAK, CALZADA egoitza, CASMARCO SL, COR SL Aholkularia, DISBARAN Banaketak, EXCLUSIVAS GERNIKA, ILLUNZAR, GAKOAK, GERNIKA INMO-BILIARIA, GERNIKA KIROLEKUA, GONDRA ABAROA Aseguroak, GORRA Bulkanizatuak, HIRULUGER Inmobiliaria, IKERLEGO Aholkularitzea eta Aseguruak, INTXAUSTI SA Eraikuntzak, IRAZABAL Ardautegia, IZAGIRRE Eraikuntzak SA, JOSE LUIS Kristaldegia, LA CAIXA, LEONCIO FERNANDEZ Abokatu, LUR Inmobiliaria, MACÍAS Inmobiliaria, MALLUKIZA Aroztegia, MRW, OKA Informatika Zerbitzuak, SAN ISIDRO KOOPERATIBA, SANJO INOX Tailerra, SENDAGAI Osasun Zentrua, SERESNOR, SORKUNDE Finka Administrazzailea, STUDIO MAPPING disei-mua eta komunikazioa, TALLERES SANJO tailerra, TTIP-TTAPA, URRUTIA Abokatuak, URRUTIA Asesoria, VITALICIO aseguruak, ZAUNKA produkzioak.

ALKARTEAK

ADES ALKARTEA, AGIRI ALKARTEA, AIURI, ALARGUNEN ALKARTEA, ANDRA MARI KORALA, ARKUPE PILOTA TALDEA, ARRANO KULTUR ALKARTEA, ASINCOC, AVIFES, BAKE LEKU, BAKEAREN ARBOLA, BARRUTIALDE ANTZERKI TALDEA, BUSTURIALDEAN EUSKARAZ, EHIZTARI, ARRANTZALE ETA TIRATZAILEEN ALKARTEA, ELAI ALAI DANTZARI TALDEA, ELIZBARRUTIKO KARITAS, EMAKIDE, ETSIAIK MAHAI-TENIS TALDEA, GERNIKAKO EMAKUME ALKARTEA, GAUDEAMUS KORALA, GAZTEAK KULTUR TALDEA, GERNIKA FUTBOL SALA, GERNIKA OFF ROAD, GERNIKA RACING ALKARTEA, GERNIKA SASKI BALOI ALKARTEA, GERNIKA SPORTING FUTBOL TAL-DEA, GERNIKA-LUMOKO MERKATARI ALKARTUAK, GERNIKAKO ARKU-TIROKETA ALKARTEA, GERNIKAKO ARTE ESKOLA, GERNIKAKO BERTSOLARI ESKOLA, GERNIKAKO EKOLOGI-LAN TALDEA, GERNIKA GOGORATUZ, GERNIKAKO RUGBY TALDEA, GERNIKATIK MUNDURA, GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA, GOIZALE, GOIZEKO IZARRA GAZTE TALDEA, HILARGI LORE, IDEASUR, IEUP GAZTEEN ALKARTEA, JAI ALAI, KOSNOAGA GAZTE TALDEA, KOSNOAGA IGERIKETA TALDEA, MAKATZ ITURRI TALDEA, MAKAZAGA MUSIKA ALKARTEA, MUSIKEDER, ODOLKIDEAK, OSTARGI ABESBATZA, S.D. GERNIKA KLUBA, SOCIEDAD CICLISTA GERNIKESA, TURDAIBAI, TIRIS GERNIKA SAHARAREN ALDE, URDAIBAIKO PERRETXIKOZALEAK ALKAR-TEA, URDAIBAIKO RUGBY ESKOLA, URDAIBIKERS MOTORZA-LEEN ALKARTEA, ZANTZOA EUSKAL KULTUR ALKARTEA, ZINE KLUB KULTUR ALKARTEA

BARRIKETAN

Cor Aholkularitza enpreseak hainbat urte daroaz Geure Berbie Euskeraz kanpainen parte hartzen eta 2009an Ziurtagiria eskuratu eban. Aholkularitza enpresako Ainhoagaz izan ginen barriketan. Hona hamen:

Ainhoa COR Aholkularitza

- **Noiztik zagoze Geure Berbie Euskeraz kanpai-nan parte hartzen?**

2003an sartu ginen kanpaina honetan; beraz, 7. urtea da aurtengoa.

- **2009an Ziurtagiria eskuratu zenduen. Zelan bururatu jatzuen Ziurtagiria eskatzea?**

Bezeroei zerbitzua elebitan emoten deutsegu. Betebeharrak beteten doguz eta zerbitzua elebitan eskeintzen danez, horregatik pentsau gendun Ziur-tagiria eskatzea.

- **Zein maila lortu dozue?**

Zerbitzua Euskeraz mailea lortu dogu lehenengo urtean.

- **Ganera, 2009an aldaketa esanguratsuak egin dozuez. Zeintzuk izan dira aldaketa horrek?**

Aurreko urteetatik bezero danei gutunak elebitan bialtzen deutseguz, baina 2009an egin genduan aldaketarik garrantzitsuena bezeroei nominak elebitan bialtzea izan zan. Txantiloia, edo plantilla, elebitan jarri genduan eta baita kontzeptu danak be. Kontzeptuak itzultzen eta programan sartzen lan dezente egin genduan. Uda ostean, bezero danei gutuna bialdu geuntsen nominak elebitan jasoteko aukerea daukiela esanez, baina bezero gitxi batzuk baino ez ziran etorri eskaria egitera. Ganera euretako batek ez daki euskeraz, baina jarrera eredugarria dauka. Orokorrean, erosotasunagatik edo, bezeroek ez dabe eskatzen eta animau egin beharko lirateke. Herritarrek eskatu egin beharko leukie.

bezeroek pausoa ez ebela emoten ikusita, euskara sailal aholkatuta erixpide bat jarri genduan, eta batzuei euskeraz bialtzen hasi ginen. Arrera ona euki dau.

Zallo Harategiak 2006an sinatu eban hitzarmena eta ordundik hona hainbat aldaketa egin dabez. Ines eta Pablogaz alkartu gara euren eritxia jakiteko eta dendan egindako aldaketen

Ines eta Pablo Zallo Harategia

- **Kanpainen parte hartzen hasi zinienean baino euskera gehiago erabilten dala esango zeunkie orain?**

Bai, lehengo aldean asko erabilten da eta hori batez be gazteengan igarten da. Nagusiagoek erderaz berba egiteko joerea daukie, baina gazteek euskeraz egiten dabe.

- **Zer esango zeunskio euskeraz jakin eta era-bilten ez dauanari?**

Animau egiten doguz, eta geuk euskeraz egiten deutsegu, holan ia euskeraz berba egiten animetan diran, baina hortik aurrerakoa euren erabagia da.
- **Azkenengo urtean hainbat aldaketa egin dozuez. Zeintzuk?**
Bezeroakaz daukaguzan ahozko hartu-emon gehienak euskeraz izaten dira. Idatzizko komunika-zinoetan be euskerearen presentziak gora egin dau: bisita-txartelak elebitan jarri doguz, nominak be elebitan daukaguz eta egiten dogun publizidade gehiena be euskeraz egiten dogu.



geure berbie euskeraz

Erredakzinoa eta maketazinoa: ARTEZ Euskara Zerbitzua



Udalak hitzarmena barriztau dau

Aurton be barriztau egin dau Udalak aurreko urteetan Kontseiluagaz sinatuta eukan hitzar-mena. Herritarrek zerbitzuak euskeraz jasotea ahalbidetuko dauan hitzarmena hain zuzen be. Maiatzaren 18an Jose Mari Gorroño alkateak, Idoia Fernández Euskara zinegotziak, Pernan Basterretxea Euskalgintzako ordezkariak eta Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak emon eben prentsaurrekoan, “gizarte-eragileek eta entida-deek euren erakundeetan euskera normalizetako pauso eraginkorrak emotea beharrezkoa” dala esan eban Paul Bilbaok, eta “horren eraginez euskaldunok euskera erabilteko espazioak be-rreskuratuko doguzala”.


2008an hasi zan Gernika-Lumo Bai Euskarari Ziurtagiriaren sustapenagaz eta behar haundia egin da lan munduko euskalduntzean eragiteko. 2008an 28 izan ziran Bai Euskarari Ziurtagiria lortu eben entidadeak eta urtetik urtera kopuru hori handituz doa. 2009an egindako ospakizu-nean 34 entidadek jaso eben Ziurtagiria.

Banaketa ekitaldia 2009ko abenduaren 20an, Merkatu Plazan egin zan. Eneritz Artetxek aurkez-tu eban ekitaldia, eta Rober Gutierrez Ziurtagiria-ren Elkarteko presidenteak eta Ekain Ormaetxeak

Kultura Zinegotziak be hartu eben hitza. Ganera, Merkatu Plazan bildutako lagun danek Lilibertso emanaldiaz gozatzeko aukerea izan eben Xabier Enbeita eta Julen Erezuma bertsolarien eskutik.

Entidade batzuk mailaz igon dabe; merkataritza arloan Berezi liburu-dendeak eta Maria Luisa lurrindegiak. Berezi liburu-dendeak Zerbitzua eta Lana Euskaraz mailea lortu dau eta Maria Luisa lurrindegiak Zerbitzua Euskeraz. Enpresen arloan be batek lortu dau maila igoerea: Zaindu Fisioterapia Zentroak Zerbitzua Euskeraz mailea lortu dau. Bestalde, alkarte batek be maila igoerea izan dau; Elai Alai dantza taldeak Zerbitzua eta Lana Euskeraz mailea lortu dau.

2009n Ziurtagiria lortu ebenen artean, barriz, oso emoitza onak lortu dabez. Aita Luis Villasante Udal Euskaltegiak eta Seber Altube Ikastolak Zerbitzua eta Lana Euskeraz mailea lortu dabe. Cor Aholkularitzeak, ostera, Zerbitzua Euskeraz mailea eskuratu dau. Zalantza barik oso maila onak lortu dabez. Aitatu, Ziurtagiria lehenengoz jasoten dabenei Udalak diruz laguntzen deutseela, kostu osoaren %30a ordaintzen deutse.



Argitaratzailea: Gernika-Lumoko Udala

Web gunea

Gernika-Lumoko Udaleko Euske-ra Sailak web gune barria izango dau laster martxan. Berton euskerearekin zerikusia daukien gaiak jorratuko dira; besteak beste, Geure Berbie Euskeraz kanpaineari buruzko informazi-noa eta interesa daukienak nora zuzendu behar diran, herrian euskerea bultzetako egiten diran kanpainen barri be emon-go da (motibazio kanpainea, “apelliduak abizendu”, nominak euskeraz jarteko “zenbatekoa bakarrik ez!” lemapean egindako kanpainea, Abixadan lasterketa herrikoiari buruzko datuak. Ga-nera, Gernika-Lumoko Udalak Kontseiluagaz sinatuta daukan akordioari buruzko albisteak be eukiko doguz: urtero sustapen kanpainea egiten dala, zeintzuk diran Ziurtagiria lortu daben en-tidadeak, zein maila lortu daben bakotxak... Urtero ataraten doguzan aldizkarien aleak be bertan eskegita eukiko doguz.

Ganera, www.euskaraplanak.net web gunera be izango dau loturea. Horrela, Geure Berbie Euskeraz kanpainako partaideek prestakuntza ariketak egiteko aukerea be izango dabe.

Hainbat dira Gernika-Lumon eus-kerea bultzetako garatuten diren jorratokiak eta horreen barri izango dogu web gunean.

🏠 <i>Webgune</i> HASIERA
<i>Geure Atalak</i>
JORRA TOKIAK
EUSKARA BATZORDEA
ARGITALPENAK
ALBISTEAK
BALIABIDEAK
ERRONKAK
GURE LEKU IZENAK

2010 urtea
16. zk.



Euskerearen erabilereak gora nabarmen

2009 urtea ona izan da Geure Berbie Euskeraz hitzarmenerako. Merkatariek hainbat aldaketa egin dabez; batzuk zigilua eta bisita-txartelak euskeraz jarri dabez, beste batzuk poltsak, besteek tiketak... Ganera, hainbat izan dira nominak ele bietan jasoten hasi diran merkataritzako beharginak be. Enpresa txikietan be aldaketa dezente egin dabez: batzuk, aurrekontuak euskeraz egiten hasi dira, beste batzuk web gunea ele bietan jarri dabe, eta aholkularitza enpresa batzuk nominen programa euskeraz jarri dabe. Geure Berbie Euskeraz kanpainako 3 aholkularitza enpresak lan haundia egin dabe eta azpimarratu beharra daukagu aholkularitza enpresek emon daben urratsa. Izan be, Cor Aholkularitza enpresek datu base osoa itzuli ostean,

nominak euskeraz eskeintzen dauz, hau da, inprimakia eta kontzeptuak be euskeraz. Horrenbestez, bezeroek nominak euskeraz jasoteko aukerea daukie eta horren barri emoteko bezero danei gutuna bidali eutseen euskeraz jaso gura dabenak esateko. Bestalde, Geure Berbie Euskeraz kanpainako partaide diran Casmarco eta Ikerlego aholkularitzak be nominen txantiloia euskeraz eskeintzen dabe. Gernika-Lumoko aholkularitza enpresek egin daben beharrari esker, herriko hainbat beharginek nominak euskeraz jasoteko aukerea daukie.

Gero eta gehiago gara!

2009an gora egin eban nabarmen Geure Berbie Euskeraz kanpainan parte hartzen daben hitzarmen-kide kopuruak. Sustapen kanpaina egin gendunean, urte hasieran, 8 merkatarik eta 11 enpresa txiki sinatu eben hitzarmena. Harrezkero be beste 3 animau dira euskerea normalizetako pausoak emoten. Merkataritza arloan Maite dendeak eta Atabal taberneak sinatu dabe

hitzarmena. Enpresa txikietan, oster, Oka Informatika Zerbitzuak, Urrutia Asesoriak eta Studio Mapping komunikazio enpresek sinatu dabe. Urrutia Asesoriak “zenbatekoa bakarrik ez!” nominak euskeraz jartera animetako egin zan kanpainan parte hartu eban eta horren ostean, hitzarmena sinatzea erabagi eban. Oka Informatika Zerbitzuak be euskerearen

aldeko apustua egin eta hitzarmena sinatu dau. Honeek danak gitxienez bi hizkuntza-tan behar egiteko apustua egin dabe eta dagoeneko hasi dira lanean errotuluak, zein edozein motatako idazkiak aldatuteko; besteak beste, aurrekontuak, web orria... Beraz, argi ikusi leike euskerearen presentziak gora egiteko entidade honek egiten dabizen ahalegina.



Elai Alai dantza taldeak hainbat urte daroaz Geure Berbie Euskeraz kanpainan parte hartzen eta alkatere honek aurten jaso dau bigarren aldiz Ziurtagiria. Elai Alai taldeko Leire eta Egoitzegaz alkatere eta alkarizketa egin deutsegu.

- Zer esango zeunskie euskeraz ez dakien gurasoei?

Euskeraz ikastera animetako eta horretarako, Elai Alai dantza taldean aukera ona daukie. Helduentzako berbalaguna proiektuan gagoz sartuta gu be eta martitzenetan izaten da, eta ostantzean, barikuetan helduentzako dantza ikastaroak izaten doguz, eta aukera ona izaten da euskerea ikasteko.

Elai Alai dantza taldea

- 2009an bigarren urtez jarraian eskuratu zenduen Ziurtagiria. Zein maila lortu zenduen?

Zerbitzua eta Lana Euskeraz maileu lortu genduan.

- Aldaketarik egin dozue?

Gehiena euskeraz euki dogu eta falta jakun bakarria Estatu-tuak ziran. Horiek Euskera Zerbitzura bialdu genduzan eta dagoeneko itzulita daukaguz. Orain ordenadoreak erosi doguz eta horietan be sistema eragilea, office... euskeraz jarteko asmoa daukagu.

- Umeekaz daukazuezan hartu-emonak zein hizkuntzatan izaten dira. Eta gurasoeikaz?

Euskal dantzak diranez, tradizionotik euskeraz egin izan dogu. Umeei euskeraz egiten deutsegu eta baten batek euskeraz oso ondo ez badaki astiroago egiten deutsegu eta holan ikasten dau. Gurasoeikaz be euskeraz egiten dogu, gehienek badakie eta. Talde bateko gurasoren batek euskeraz jakin ez arren be, euskeraz egiten dogu eta ulertu ez dabena gaztelaniz azaltzen jako. Eurei bialtzen deutseguzan gutunak be holantxe izaten dira, eta euskeraz ez badaki seme-alabek azaltzen deutsee gutunean zer jarten daben.

Euskera gidari

Gernika-Lumon egunerokotasunean euskerea arlo askotan erabili leike eta erabiltzen da. Baina euskerearen erabilerea arlo danetan normalizetako, Udalak kanpaina bat jarri eban martxan, eta horren helburua herritarrek gidabaimena euskeraz ataratea da, eta horretarako gidabaimena euskeraz ataraten daben herritarrei dirulaguntzak emon deutsez. Udaleko Euskara Zerbitzuak Gernika-Lumoko autoeskoletako arduradunekin alkatere eta kanpainaren nondik-norakoen barri emon deutsee. Diru-laguntzak martxan jartez ganera autoeskoletan euren beharra euskeraz ahalik eta ondoen egiteko laguntzinoa emon deutse Udalak.



Hizkuntzen kudeaketa enpresa ertainetan



Gernika-Lumon Euskara Plana martxan daukien enpresak egoera desbardinetan dagoz: 2006an Gernika Garbiketako izan zan lehena plana martxan jarri ebana. Enpresa honetan helburu asko eta asko beteta daukiez, baina orain jorratzeko daukiena ahozko erabilerea da batik bat. Hori lantzeko mintzapraktikako eskolak izaten doguz. 2 urte pasau dira eskola honek martxan jarri ziral, eta apurka-apurka euskeraz gehiago egiten dala esan leike. Astean behin teknikaria etorten da eta euren lanpostuetan beharrean dabilzan bitartean eskolak emoten dira eta horren helburua euskeraz berba egiteko ohitua hartzea da.

Plana martxan jarri eban hurrengo Bus-turialdeko Irrati Tebista izan zan. Honek

be helburu asko beteta daukaz, eta honen 2010erako erronka ahozko jardunak sekulako garrantzia dauka.

Bestalde, 2008an Bengozarra Eraikuntza Metalikoak 1969 SA eta Ekin/Bizkargi Autoak SAL enpresek jarri eben martxan Euskara Plana. Hainbat pauso emon dabez, baina 2010erako be hainbat erronka jarri dabez. Ekin/Bizkargi Autoak enpresako kontze-sionarioan adibidez, autoen ezaugarriak daukien errotulazinoa euskeraz jartzen hasi dira, baina aurtengo helburuetako bat erdiak euskeraz eta beste erdiak gaztelaniz ipin-tea da. Ganera, ez da erreza izaten, baina aurrekontu batzuk euskeraz egingo dabez. Beraz, bezeroek euskeraz eskatu ezker,



euskeraz jasoteko aukerea eukiko dabe. Izan be, etxeetako fakturazino programeagaz beharra egiten dabe eta txantiloia eta kontzeptuak gaztelaniz dagoz eta ez da erreza izaten euskeraz behar egitea honeentzat. Amaitzeko, beharginek euren arloko terminologia lantzeko panelak jarriko doguz eta horreek jorratzeko lehiaketak antolatu doguz. Bengozarra Eraikuntza Metalikoak 1969 SA enpresan be hainbat helburu markau dabez aurtengo urterako: aurrekontu eta faktura gehiago egitea euskeraz eta, prebetzio planean hizkuntzak kudeatzen hastea errotulazinoa elebietan ipintea besteak beste.

Amaitzeko, Argi Olak 2009an abiatu eban Plana. Honen erronketako bat euren arloko terminologia lantzea da.